

Liburu bat gomendatu nahi al duzu?

Euskeraz idatzitako liburuak gomendatzeko txokoa da Literatur Txokoak, Doberak eta Udal Liburutegiak sortua. Gomendioak Kronikak argitaratzen ditu. Hurrengoa, hilaren 29an.

Udaran, libururen bat edo beste irakurtzeko tartea hartuko zuen batek baino gehiagok ziur aski. Eta horien artean izango da biziki gustatutakoren bat. Kasu horretan, ze hobe liburu hori beste bati gomendatzea baino! Horretarako bidea eskaintzen du Literatur Txokoak, Dobera Euskara Elkarteak eta Udal Liburutegiak sortua. Txoko honetan, euskeraz idatzitako liburuei buruzko gomendioak egiteko aukera ematen da eta gomendioak Kronikan argitaratzen dira, hilabeteko azken igandetan. Hurrengoa, hilaren 29an.

Herritar guztiei irekia

Literatur Txokoan edozein herritarrek hartu dezake parte eta animatzeko dei egin dute Doberak eta Liburutegiak: «Euskeraz idatzitako liburu bat gustatu bazaizu, gomendatzera animatzen zaitugu. Nahikoa da idaztea ze sentitu duzun, ze gustatu zaizun...». Izan ere helburua honakoa da: «herriarrek euskeraz irakurtzea eta parte hartzea».

Emailez edo zuzenean

Idatziak bi modutan bidali daitezke: emailez, dobera@dobera.com edo liburutegia@hernani.net; eta zuzenean, Dobera (Larramendi 11, behea) edo Liburutegia (Biteri).

Urtarrilean jarri zen martxan egitasmoa eta dagoeneko 7 gomendio argitaratu dira. Doberako webgunean ikusgai daude.